



RURAL KUTXAK OPARI ZIURRA ESKAINTZEN DIZU

*“Zure inizialak bordatuta
dituzten 3 eskuoihal bikain”*



AURREZ EZAZU & IRABAZ EZAZU
AURREZ EZAZU & IRABAZ EZAZU

250.000 pezeta sartuz
gero zure aurrezki-libretan(*), 3 eskuoihal
bikain jasoko dituzu, kizkur amerikarrekoak,
% 100ean kotoi naturala

(*) Dirusarrerak 99-10-5ean zure kontuen guztizkoaren saldoan 250.000 pezeta handitu beharko du. Ez dira diru-aldaketarik onartuko. Bakarrik pertsona fisikoentzat. Bi opari bezero eta libreta bakoitzeko. Promozio honek 99-10-6tik 99-10-25era arte balio du, biak barne.

www.cajarural.com/navarra



NAFARROAKO
RURAL KUTXA

15 urte eta gero, berriro hemen

Nafarroa Oinez jaia bigarren
aldiz egingen da Iruñean

IRUÑEKO Jaso Ikastolak antolaturik Nafarroa Oinez jaia ospatuko da bihar Iruñean. Euskararen aldeko jaia Nafarroan 19. aldiz egingen da bihar, eta bigarrez aldiz Iruñean.

Duela 15 urte Herri Ikastolak Iruñeko Gotorlekuan ospatu zuen Nafarroa Oinez jaia, lehenengo aldiz Iruñean. Garai horietako jaiak ez ziren gaur egungoak bezain jendetsuak, eta gainera, Herri Ikastola gero itxi egin behar izan zuten. Hala ere, jaia antolatzeke eta ikastolak eta euskarara bultzatzeko gogo eta beharrak antzekoak dira, eta Jaso Ikastolako haur, guraso eta irakasleek urtebete eman dute jai polit bat prestatzeko.

Aurtengo Nafarroa Oinezek, aurrekoek bezala, Euskal Herriko leku guztietako jendearentzako jai alaia izan nahi du. Baina antolatzaileek ez dute behar ekonomikoa eta euskararen aldeko aldarrikapena atzendu nahi izan, eta horrek guztiak bat egingen zuen programa osatzen saiatu dira.

Zazpi kilometro inguruko ibilbidea prestatutik dago, eta sei gune izanen ditu. Baina guneak ez dira urtero bezalakoak izanen; aurtengo guneak gai ezberdinen ingurukoak izanen dira guztiak: Sanferminak, Miluze, Argako Portua, Gazteleku, Zirkoa eta Txikitegia. Ekitaldiak ere gai horren ingurukoak izanen dira batzuk; besteak, inongo gairi jarraitu gabe, ongi pasatzeko egokiak.

Urte osoko ibilbidea

Nafarroa Oinez 99rako ibilbidea prestatzen ari zirela, hirian ospatuta, berezitasunak izan beharko zituela pentsatu zuten antolatzaileek. Iruñeak oso alde zahar eder eta ezaguna du, eta jaiak Iruñearen adierazgarri izan

behar bazuen, bertatik igarotzea nahitaezkoa zen. Gainera, azken urteotan asko handitu da Nafarroako hiriburua, eta hori aurkeztea ere interesgarria zatekeen. Jaso Ikastolaren eraikin berria Mendebalde auzo berrian zegoenez, auzo zahar eta berria ibilbidean lotzea polita zatekeela pentsatu zuten arduradunek.

Baina halako festa baten antolakuntzan normala ohi denez, arazo ugari izan zituz-

ten, eta ez zuten alde zaharreko gunea jartzeko baime-na lortu. Hala ere, biharko ibilbideak Iruñeko alde zahar eta berriak lotu ditu, eta Arga ugaldearen er-tzetatik igaroko da gehiena.

Duela 19 urte Nafarroa Oinez jaia lehen aldiz egin zutenean egun bakar ba-teko antola-

kuntza batean ibili ziren. Baina azken urteotan aldaketa anitz izan ditu jaiak, eta urtebeteko gertakaria izaten ohi da. Aurten Nafarroa Oinez jaiaren inguruan inoiz baino ekitaldi gehiago egin dituzte, eta euskararen aldeko lana urte osora luzatu da.

Hala ere, gehienontzat jai bera da ekintzarik politena, eta hori behar bezain ongi atera dadin lan handia egin dute Jaso Ikastolakoek. Hirian ospaturik, abantaila gehiago ekarri ditu. Ibilbidean zortzi sarrera prestatu dituzte, eta kotxeak eta autobusak uzteko bi leku handi daude, Landabenen eta Sanduzelain. Gainera, Iruñeko tren geltokia ibilbidearen ondoan dago, trenetz etorri nahi dutenentzako.

Horrez gain, bazkaltzeko aukera anitz izanen dira. Gune guztietan otartekoak prestatzen dituzte, eta gainera bost eta seigarren guneen artean jantokia paratu dute.

Garraioa

Autoak eta autobusak uzteko bi leku handi daude, Landabenen eta Sanduzelain. Gainera, Iruñeko tren geltokia ibilbidearen ondoan dago